

zuzendariari

(0034) 943 300 222



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Zuberoak behar gaitu,
Euskal Herria behar dugu

Iosu Mateo • BURLATA

Nahiz eta batzuek gogor ukatu, Euskal Herria izan bada, beharbada ofizialki ez da inon agertzen, eta bi estatuen menpe ego-teak desitxuratzen du garen herria.

Hala eta guztiz ere, izan dena da eta duda izpirik gabe izanen da, eta ez naiz politika mailan ari, ez; hori baino askoz sakonagoa den sentimendua goraipatu nahiko nuke, hots, Euskal Herritarra izatearen sentimendua.

Hau guztia esanda, nire asmoa zen *Xiberoa Garatzen!* egitasmoari buruzko hausnarketa eta ekarpena egitea, betiere apaltasun osoz.

Burlatatik idazten ari natzaizue, eta, arestian izenburuan esan bezala, Zuberoak behar gaitu; bai, tamalez hala da, orain arte ezagutu dugun Zuberoa liluragarria bezain maitagarria desagertzeko zorian baitago.

Batek baino gehiagok pentsatuko du ea nola den posible hori; posible da, eta Zuberoak gaur egun duen egoera ikusi besterik ez dugu egin behar hori guztia ulertu ahal izateko, despopulazioa (orain dela berrogei urterekin alderatuz populazioa erdira jaitsi da), lanposturik eza (bertako betiko lantegien desagertzea), eta horren ondorioz zuberotarrak lan bila kanpora joateko beharrean daude.

Beraz, hori guztia ikusita, Udalbiltzak erronka horri aurre egitea erabaki zuen; horretarako, abian jarri zuen *Xiberoa Garatzen!* proiektua. Denok dakigun bezala, Euskal Herrian betidanik premia osoa egon da baten aurrean auzolana izan da esku artean izan dugun tresnarik garrantzitsuena; hortaz, Zuberotarrek Bat auzolanean da, hain zuzen ere, *Xiberoa Gara-*

tzen! egitasmoaren funtsa. Beraz, ekin diezaiozun lanari eta eman diezaiozun Zuberoari ezinbestekoa duen laguntza. Eta hori, nola egin dezakegu? Bada, Udalbiltzak aurkeztutako erronka ez da makala, milioi bat euro lortzea Euskal Herria osoan, diru horrekin Zuberoako ekonomia berpiztu nahian.

Tira, ez da lan erraza izanen, baina lortu egingo dugu, baita hori baino gehiago ere, dudarik gabe. Horretarako, elkartasunaren izenean, Euskal Herriko herri eta auzo guztietan Zuberoaren aldeko olatua harrotu egingo da, Zuberoari merezi duena emanez.

Euskal Herriko bihotzetik odol sobera —dirua kasu honetan— emanen diogulakoan nago. Beraz, sakela astindu, eskuza-

balak izan eta pentsa zer Euskal Herria liratekeen Zuberoa gabe. Hortaz, modu pertsonalean, lagun taldeetan, lantegietan zein elkarteetan *Xiberoa Garatzen!* horren aldeko aportazioak egin beharko ditugu (250 euroko aportazioak dira), Zuberoa dagoen ataka horretatik ahalik eta azkarrena atera ahal izateko.

Arestian aipatu bezala, elkartasunaren, Euskal Herritarren elkartasunaren izenean hau guztia gauzatu behar dugu; *elkartasuna* hitza oso polita bada ere, askoz politagoa delako ekintzekin batera doanean.

Hori horrela izanda, Zuberoak behar gaituen eta Euskal Herria behar dugunez, euts diezaiozun gure arbasoengandik jasotako Euskal Herriari, eta, horrela

eginda, gure ondorengoek, egunen batean, eskertuko digute.

Tzat sinhesten dutenak' euskararen geroan

Erramun Gerrikagoitia • LEKEITIO

Irakurria dut berriki tiraldi kasik bakharrean liburu *Euskararen garabideak* titulatu, professore ekonomista Jesus Rubiok izkiriaturia. Anhitz gustatu zait eta ditu liburuak euskararen problemak klarki planteatzen eta erraiten egia biribil evidenteegiak, zeintzu egia evidenteok hainbat euskalzaleri (edo pseudoeuskalzale kamuflaturi) min eragingo bait deraue. Baina egia bethi da egia.

Jn. professore Jesus Rubiok sinhesten du ezen euskara orain izkiriok darabilgukin dadukala gainkarga frenagarri syntaktikoa, zein euskarari den kaltegarri eta gehiegizko ithogarri. Neuk ere baietz pentsatzen dut, eta orain' ondoren irakurri bere liburua lehen baino ziurrago nago. Anhitz esker jn. Rubio zure apportionatione konzeptual horren gatik.

Nolanahi eta nonnahi ere euskararen gainkarga syntaktiko (edo desegokitasun remediable hori) ez litzateke bakharra, erran nahi bait da, gainkarga syntaktikoa hutsik. Nork dezake erran ere ez dadukala egungo euskara telegidatuak (sanhedrin eksklusivo eksklusivistatik) gainkarga lexicalkik, gainkarga orthographikorik, gainkarga phonetikorik, gainastuntasun pintsurik? Gainkarga astunez kargatuegia dadukaguke euskara, geuk.

Izan dakiguke *Euskararen garabideak* liburua gogoeta, reflexione eta akzione aktibo efikazeraro bide lagungarri, teoriko eta praktikoa. Liburu gomendagarria tzat dutenak euskararen ardura fin, sendo, zindo eta determinantea.

hemeroteka



Jose Mari, langabezi legeari buruz hitz egitera gatoz. Egia da: Bushek baino bizkorrago egiten du lasterka.

galdeiozu... ?



HASIER
ETXEBERRIA

Idazlea eta kazetaria

Kazetari izatea idazle
lanerako baliagarria izan al
zaizu? Ala literatura sortzeak
ez du loturarik informazioa
ematearekin?

Markel Beramendi (Tolosa)

Niretzat, kazetari lana ogibidea da, baina ez hori bakarrik: bizitzan egoteko modu erne bat ere bada. Idaztea bera dut gogoko, bai kazetari lanak, bai literarioak eta baita *kreatibo* deitzen den horren arlokoak ere: gidoiak, iragarkiak eta kanpainak, katalogoak, erakusketetarako asmoak... Jakina, ez dira lan guztiak maila berekoak, eta lan literarioak izaten dira maiteenak. Alabaina, literatura hutsetik bizi nahi dugula esaten den arren, nahiago dut horrelaxe, apur bat denean ibilita, Victor Hugoren antzera, tartea tarteko, jakina.

Uztailaren 9tik aurrera **Olatz Altuna** • SEIk egindako euskararen kale neurketaren koordinatzailea izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Koldo Almandoz

Hirustarako gai posibleak

Bakeroetako atzealdeko poltsikoan eramane ohi duen paper batean apuntatzen joan naiz aste honetako hirusta posibleen gaiak. Aste osoan ez ditut galtza berak eramane... beno, bai. Baina guztiok dakigu bakeroak oso sufrituak direla.

—Latexezko alu bat oparitu genion Anderri. Buruan ia beti alu bat izateak, alu bihurtzen gaitu askotan. Arrosa. *Made in China*. Eta emamintza, himena, bere lekuan. Latexezko aluek ere floria galtzen dute. Harekin tontokeriak egin ostean kalean utzi genuen. Goizaldean haur batek topa zezan.

—4 mila milioi eta gehiago pezeta. Kale borroak eragindako kalte-ordainak neurtu eta Batasunari dirutza hori eskatu diote. Konturatzen al da Garzon zenbat bahiketa egin behar den hori ordaintzeko? Eta zenbat iraultza zerga bildu? Baina ez al daki terroristek aurtan ezin dutela barraka politikorik jarri sanferminetan?

—«Patxi Zabaleta traidorea» irakur daiteke kalean jarri dituzten karteletan. Norbaitek, bolalumaz, diana bat marraztu du argazkietako batean. Aberria zaldi bat da. Eta zaldi bat gidatzeko bi aukera daude: jockeya izatea edo jonkia izatea.

—«Egun on, nire vietnam sentimentala». Gutxitan agurtu naute hain modu polit eta mingarrian.

—Karmelo C. Iribarren-en poema batekin amaituko dut. Behin, Harkaitzi oraintxe bertan sentitzen dudana azaldu eta berak «Karmelok zuk esan duzun gauza bera idatzi zuen poema batean» esan zidan. *La Ciudad* izeneko bere azken liburuan irakurri dut: «*llegar al fin / hasta la puerta / de tu casa, / entrar / echar todas las cerraduras, / y, como quien saborea / el sabor de la venganza, / decirlo: 'ahí os quedáis, hijosdeputa'.*».